

12. GAIA: “Testamentuaren interpretazioa eta exekuzioa”

I.-ARAUDIA

Kode zibila

II.-TESTAMENTUAREN INTERPRETAZIOA

Testamentuaren edukia, ahoz edo idatziz adierazitako hitzek osatzen dute eta, jakina denez, hitzaren esanahia eta adiera zehazteak arazoak sortzen ditu zenbaitetan. Testamentuaren interpretazioari buruzko jurisprudentzia oso ugaria da; izan ere, eztabaida eta judizio asko sortu dira testamentuen edukia zehazteko garaian. Azken borondatea adierazteko ematen da testamentua: hitzek osatzen dute haren edukia eta hortik sortzen da, askotan, hitzak interpretatu beharra, azken borondate hura zein den jakiteko: batzuetan, argi egongo da zer esaten den, hitzen esanahia eta benetako esanahia bat datozelako; bestetan, berriz, itxuraz jartzen dena eta benetan esan nahi dena ez dira bat etorriko eta erabaki beharko da esanahi hertsia edo zabala hartu behar den; eta, zenbaitetan, osatu egin beharko da esanahia edo egoera berrietara egokitu testatzailearen nahia.

Beste negozio juridikoetan bezala, testamentuan ere bi elementu biltzen dira eta, bakoitzaren arabera, interpretazioa izan daiteke:

(1) **Subjetiboa**: subjektuaren borondatea ezagutzera zuzentzen dena.

(2) **Objetiboa**: erabilitako hitz eta esaldien esanahia zehaztera zuzentzen dena.

Kode Zibileko 675. artikulua da testamentua interpretatzeko arau nagusia: *toda disposición testamentaria deberá entenderse en el sentido literal de sus palabras, a no ser que aparezca claramente que fue otra la voluntad del testador. En caso de duda se observará lo que aparezca más conforme a la intención del testador, según el tenor del mismo testamento. El testador no puede prohibir que se impugne el testamento en los casos en que haya nulidad declarada por la ley.*

Aipatu artikulua argi uzten du, beraz, TESTATZAILEAREN BORONDATEA dela testamentua interpretatzerakoan bilatu behar dena, hitzen esanahi literalaren gainetik. Garbi geratu behar du, hala ere, interpretazioarekin ezin dela inoiz xedapen berri bat sortu. Noski, askotan gertatzen da xedapenak osatu beharra, gehienetan zerbait modu ilunean esan delako edo zalantza sortzen duelako. Testamentua osatzeko aukera, betiere xedapen berria sortu gabe, jurisprudentziak onartu du, eta interpretazioa osatzailea deitu zaio (*interpretación integrativa*). Kasu horretan, berez, ez dago argi benetako interpretazioa ote den edo osatzeko zeregina interpretaziotik bereizi beharreko zerbait ote den, azken batean integratzeko edo osatzeko jarduera objektua zehazteko arazoarekin lotzen baita.

Testamentua interpretatzeko beharra dagoenean, xedapenaren hitzez hitzeko esanahia izango da abiapuntua (AGEE 1942/7/3, 1943/2/11, 1971/9/23, 1985/7/1). Baina, hitzez hitzeko interpretazioak testamentugilearen nahia jakitera eramaten ez badu, beste interpretazio-irizpide batzuk ere erabili beharko dira interpretazio literalaz gain: **gramatikala**, **logikoa** (hitzak beste batzuekin erlazionatzea), **sistematikoa** (testamentuaren atalak bata bestearekin lotzea, osotasuna kontutan hartuta) eta **teleologikoa** (kzeko 3. art.). Horiek, noski, zalantza kasuetan aplikatuko dira, erabiltzen diren terminoak ilunak edo anbiguoak badira, alegia.

Interpretatzeko zereginean, bereizi behar dira:

- (1) **Objektua**: zer interpretatzen den.
- (2) **Baliabideak**: nola interpretatzen den.

Objektua, noski, testamentua da, idatziz dagoen dokumentua, hain zuzen ere; objektua zehazteko, hitzak funtsezkoak dira, baina kontuan izan beharko dira bestelako elementuak ere, esaterako testamentugilearen adierazpenak, egintzak (kontratuak), gutunak eta abar..

AGE 1974/11/26 (RAJ 4490): “La interpretación de los negocios jurídicos, al ir dirigida a indagar el significado efectivo y el alcance de una manifestación de voluntad, exige, fundamentalmente, captar el elemento espiritual, la voluntad e intención de los sujetos declarantes contenidas, en el acto jurídico, sin limitarse al contenido aparente e inmediato que resulte de las palabras; y esta tesis, que alcanza especial relieve y aplicación cuando se trata de declaraciones de voluntad no recepticias, cual lo es el testamento, está sustancialmente acogida por el art. 675 del CC, que concede notoria supremacía a la voluntad real del testador sobre el sentido literal de la declaración, sin perjuicio de prescribir -en razón a que ha de suponerse que las palabras, por lo general, exteriorizan y reflejan fielmente la voluntad- que debe el intérprete atenerse al sentido textual, siempre que la intención no aparezca contraria o, lo

que es igual, siempre que el texto de las cláusulas testamentarias sea claro y expresivo, de suerte que basta la simple lectura para colegir por medio inequívoco el propósito e intención del testador; no pudiendo los elementos llamados usualmente gramatical, lógico y sistemático aislarse unos de otros, ni ser escalonados como categorías o especies diversas de interpretación, pues no son más que medios o instrumentos que el intérprete ha de poner en juego dentro de un proceso interpretativo unitario, por lo que el citado art. 675 no impide ni podía hacerlo, un orden sucesivo de prelación en que deban utilizarse los criterios interpretativos, pues no excluye que para determinar si hay una clara voluntad del testador que obligue a no dar a sus palabras su sentido literal (hipótesis prevista en la proposición primera) o para apreciar si hay, cuando menos, motivos de duda a este respecto (hipótesis de la proposición segunda), se debe utilizar, conjunta y combinadamente, los instrumentos todos de la interpretación; pudiendo nacer el caso de duda a que se refiere el propio artículo, no sólo de que las cláusulas del testamento sean oscuras o ambiguas, sino también de que sean en algún punto inexpresivas, ya que la ley no excluye esta posibilidad y, por consiguiente, admite implícitamente que el sentido literal de las disposiciones del testamento, insuficientemente expresado, pueda ser desenvuelto e integrado por el Juez, siempre que para ello se parta de las propias declaraciones del documento testamentario, o, lo que es igual, del «tenor del mismo testamento», del cual pueda extraerse por modo claro la verdadera y completa voluntad del disponente”.

Testamentua interpretatzeko eta, hala dagokionean, osatzeko erabil daitezkeen *baliabideak* bitan sailkatzen dira:

(1) **Barne-baliabideak:** testamentuak berak ematen dituenak, alegia. Hasteko, hitzek adierazten dutenari eutsi beharko zaio. Hala ere, interpretatzaileak alda dezake esanahi literala:

(2.1) Kontraesana sortzen bada emailearen nahiaren eta erabilitako hitzen artean; edo hitzen artean besterik gabe.

(2.2) Lehen adierazi denez, garrantzia berezia izango dute horretarako testamentugilearen inguruabarrek; hala nola, ohiko hizkuntzak, hezkuntzak, bizimoldeak, ideologiak, eta abar.

(2) **Kanpo-baliabideak:** testamentugileak testamentuan eman dituen elementuak ez badira nahikoak, kanpo-elementuetara jo daiteke, betiere testamentuko xedapena interpretatu beharra dagoen heinean (kzeko 1281. art.). Interpretazio osatzaileak sortzen duen arrisku bera izango da: xedapen berria sortzekoa, alegia. Elementu horiek dira, esate baterako, testamentugilearen jokamoldeak, portaerak, egintzak edo ohiturak. Jurisprudentiak onartu du elementu horietara jotzea, baina esanahia argitzeko eta ez, esaterako, egindako omisioak ordezkatzeko.

Testamentua interpretatzen laguntzeko, legeak interpretaziozko hainbat arau ematen ditu, batzuk testamentuari buruzko eraentzan bertan eta beste batzuk kontratuari buruzko eraentzan. Lehenik, testamentugilearen benetako borondatea zein den ezin badu zehaztu ere legeak, zenbaitetan borondate hori osatzeko arauak ematen ditu Kodeak, hala nola 346, 347, 668, 747, 749, 751, 765, 767, 768, 769, 770, 771, 779, 780, 797 eta 864. artikuluetan emandako arauak.

Bigarrenik, jakina denez, testamentua, izaeraz, negozio juridikoa da, aldebakarrekoa gainera. Kodea zibilean negozio juridikoari buruzko araudi orokorrik ez badago ere, horren ezean, kontratuei buruzko araudia aplikatzen dela da (Kzeko 1281-1289. artk.). Horregatik, kontratuak interpretatzeko erabiltzen diren arauak ordezkatzailleak izan daitezke, beti ere egokitzu testamentuaren kasura, negozio gisa desberdintasun ugari baitaizkate bata bestearekin. Horrela, Kodeko 675. artikulua emandako arauen parekoak diren 1281., 1282. eta 1283. artikulukoak alde batera utziz, jurisprudentziak onartu du arau hauek aplikatzea :

(1) Eraginak sortzera zuzendutako interpretazioa (*favor testamenti*): *Si alguna cláusula de los contratos admitiere diversos sentidos, deberá entenderse en el más adecuado para que produzca efecto* (Kzeko 1284. art.). Testamentuari aplikagarri zaio.

(2) Testamentua sistema gisa osorik interpretatzea (interpretazio sistematikoa): *Las cláusulas de los contratos deberán interpretarse las unas por las otras, atribuyendo a las dudosas el sentido que resulte del conjunto de todas* (Kzeko 1285. art.).

(3) Doako tituluetan gutxieneko esleitzearen alde jotzea eta, xedapena zamaduna bada, interesen orekaren alde jotzea: *Cuando absolutamente fuere imposible resolver las dudas por las reglas establecidas en los artículos precedentes, si aquellas recaen sobre circunstancias accidentales del contrato, y éste fuere gratuito, se resolverán en favor de la menor transmisión de derechos e intereses. Si el contrato fuere oneroso, la duda se resolverá en favor de la mayor reciprocidad de intereses. Si las dudas de cuya resolución se trata en este artículo recayesen sobre el objeto principal del contrato, de suerte que no pueda venirse en conocimiento de cual fue la intención o voluntad de los contratantes, el contrato será nulo* (Kzeko 1289. art.). Arau horiek, bereziki, legatuen kasura aplikatu daitezke.

(4) Aldiz, zalantzazkoa da Kodeko 1287. artikulua aplika daitekeen ala ez: *el uso o la costumbre del país se tendrán en cuenta para interpretar las ambigüedades de los contratos, supliendo en éstos la omisión de cláusulas que de ordinario suelen establecerse*. Zenbait lekutan, testamentua egiteko modu bereziak egon daitezke, ohiturazkoak; kasu horretan, kontuan hartu beharko dira.

Bukatzeko, **interpretatzailea** nor den ere zehaztu behar da. Testamentua exekutatu behar dutenek interpretazioa egiten badute ere, gainerakoek errespetatu beharrekoa epaileak bakarrik egin dezake (AGE 1985/4/28). Orain, testamentuan adierazitako borondatea interpretatzeko zeregina testamentugileak eman diezaioke norbaiti (Kzeko 675 *in fine* eta *sensu contrario*, kontatzaile-partitzailea eta albacea lirateke, adb.), beti ere Kodeko 670. artikuluko muga errespetatuz.

Arbitrariari buruzko 60/2003 legeak, halaber, zera dio: *también será válido el arbitraje instituido por disposición testamentaria para solucionar diferencias entre herederos no forzosos o legatarios por cuestiones relativas a la distribución o administración de la herencia* (10. art.). Arbitro bat izenda daiteke testamentua interpretatzeko, antza.

Jurisprudentziak finkatu du, behin eta berriz, testamentua interpretatzea instantziako epaileen funtzioa dela; beraz, auzitegi gorenak kasazioan errespetatuko du instantziako epaileen interpretazioa (*quaestio iuris*), baldin eta errakuntza nabaririk ez badago edo irizpide logikoa eta arrazionala apurtzen ez bada.

AGE 1987/6/9 (RAJ 4049): “Es constante y reiterada la doctrina sentada por esta Sala de que ha de primar siempre la voluntad del testador sobre lo estrictamente literal, constituyendo un deber del intérprete indagar, inquiriéndola acuciosamente, y revelar la voluntad verdaderamente existente en el ánimo del causante en el momento en que efectuó el acto de disposición; pero esta actividad es un quehacer de la soberana incumbencia del Tribunal de instancia, respetable en casación mientras se mantenga dentro de los criterios racionales y no desemboque en lo arbitrario, al extremo de tergiversar manifiestamente el texto de la disposición testamentaria, supuestos para los que no se excluye el acceso a la casación”.

Testamentua interpretatu badaiteke ere, testamentua **integratzeko** aukerarik ez da onartzen printzipioz. Integratzeko zereginean, bakarrik onartuko da testamentuan zalantzarik gabe aipatutako borondatearekin bat datorren erabakia.

AGE 1944/3/6 (RAJ 303) : “El caso de duda a que se refiere el propio artículo puede nacer, no sólo de que las cláusulas del testamento sean oscuras o ambiguas, sino también de que sean en algún punto inexpresivas, ya que la ley no excluye esta posibilidad y, por consiguiente, admite implícitamente que el sentido literal de las disposiciones del testamento, insuficientemente expresado, pueda ser desenvuelto e *integrado* por el Juez, siempre que para ello se parta de las propias declaraciones del documento testamentario, o,

lo que es igual, del «tenor del mismo testamento» del cual pueda extraerse, por modo claro, la verdadera y completa voluntad del disponente”.

III.-TESTAMENTUAREN **ALBAZEA**

EXEKUZIOA:

1.-Kontzeptua

Kode zibilak 892-911 artikuluetan arautzen du albazearen figura. Albazea testatzailearen konfiantzazko pertsona bat da, honek testamentuan izendatzen duena, hil ostean bere testamentua exekutatu dezan. Administratzailea eta kontatzaile-partitzailea ez dira funtzio berak, baina maiz albazearen karguaren barne sar ditzake kausatzaileak. Pertsona ezberdinak izenda ditzake, beraz, funtzio bakoitza betetzeko, edo bakar bat denetarako: albazea.

2.-Izaera juridikoa

Hirugarren baten interes pribatuak kudeatzen dituen pertsona da albazea; testatzaileak testamentuan izendatu eta hau hil ostean, bere kargua onartzen duena, alegia. Izendapena eta karguaren onarpena ez dira, ba, aldiberean ematen; halaber, karguaren onarpena kausatzailea hil ondoren gertatzen da.

Doktrinaren zati batek albazeatzaren figura MANDATUAREKIN lotu du, izan ere bi figuren artean antzekotasunak baitaude: a) Bietan izendatuak hirugarren baten interesak kudeatzen ditu; b) Izendatzaileak izendatuarengan duen konfiantza da izendapenaren funtsezko oinarria. Ezberdintasun bakarra, negozioaren egituran legoke, orduan: mandatua aldebiko kontratua den bitartean, albazearen izendapena aldebakarrekkoa da eta onarpena diferitua geratzen da, testatzailea hiltzen denerarte. Hala ere, funtsean helburu bera dutenez bi figurek, autore gehienek nahiko hurbil kokatzen dute albazeatza mandatuarekiko.

3.-Albazea izateko gaitasuna

Kode zibileko 893. artikulua arabera, *no podrá ser albacea el que no tenga capacidad para obligarse. El menor no podrá serlo, ni aun con la autorización del padre o del tutor.* Emantzipatuak obligatzeko gaitasuna du, kontutan izanik Kodeak 323. artikuluan ezarritako mugak eta, ondorioz, albacea izan liteke, mandatu-hartzailea izan daitekeen bezala (κzeko 1716. art.). Pertsona juridikoek ere badute gaitasuna, berariazko aipamenez ez baita ezer esaten eta obligatzeko gaitasuna baitute (κzeko 38. art.). Noski, pertsona juridikoaren helburuetan sartu beharko du kargua egikaritzea: bere xedea edo objektu soziala izan beharko du, alegia. Gaitasuna neurtzeko garaia kargua onartzen den unea da eta ez oinordetza irekitzen den unea.

4.-Albazea motak

Sailkapen ezberdinak egin daitezke erabilitako erizpidearen arabera:

(1) Eremuaren arabera, albazea **unibertsala** edo **partikularra** izan daiteke (κzeko 894.1. art.). Kodeak, gero, ez du bereizteko irizpiderik ezartzen eta bereizketa hori ez du garatzen. Autoreen eritziz, unibertsala izango da ahalmen guztiak dituen albazea (izan ditzakeenetatik danak baditu), eta partikularra, ahalmen zehatz bat edo batzuk baditu soilik.

AGE 1984/3/22 (RAJ 1317): “En el ámbito de la ejecución testamentaria la existencia de un albacea universal conforme a lo previsto en el art. 894, es decir, investido de todas las facultades precisas para cumplir la voluntad del *de cuius* hasta la adjudicación y entrega de los bienes y por lo tanto las de contar y partir”.

Albazea partikularrari buruzko suposamendu bat jasotzen da 907.2. artikuluan: *si hubieren sido nombrados no para entregar los bienes a herederos determinados, sino para darles la inversión o distribución que el testador hubiese dispuesto en los casos permitidos por derecho, rendirán sus cuentas al Juez.*

(2) Erantzukizunaren arabera, albazeak bat baino gehiago badira noski, **segidakoak** edo **aldi berekoak** izan daitezke, eta azken hauek **mankomunatuak** edo **solidarioak** (κzeko 894.2. art.).

(2.1) **Segidako albazeak**: norbaitek huts egiten badu, beste norbait deituko da albazea izan dadin. Deialdi bat eta ordezkotzat, nolabait esateko.

Aldi berean deitutakoak, halaber, izan daitezke:

(2.2) **Albazea mankomunatuak:** *cuando los albaceas fueren mancomunados, sólo valdrá lo que todos hagan de consuno, o lo que haga uno de ellos legalmente autorizado por los demás, o lo que, en caso de disidencia, acuerde el mayor número* (κzeko 895. art.). Gehiengoa osatzeko, kargua hartu dutenak kontatuko dira. Albazeak gehiengoz ados jartzen ez badira edo akordioa hartzea ezinezkoa bada, albazeatza iraungi egiten da. Hala eta guztiz ere: *en los casos de suma urgencia podrá uno de los albaceas mancomunados practicar, bajo su responsabilidad personal, los actos que fueren necesarios, dando cuenta inmediatamente a los demás* (κzeko 896. art.). Beraz, urgentzia-egoera eskatzen da eta erabakia baliozkoa izango da, urgentzia-egoera egoteaz gain besteei egindakoaren berri ematen badie; erabakia egokia bada, erabakia denek hartu izan balute bezala izango da.

(2.3) **Albazea solidarioak:** *si el testador no establece claramente la solidaridad de los albaceas, ni fija el orden en que deben desempeñar su encargo, se entenderán nombrados mancomunadamente y desempeñarán el cargo como previenen los dos artículos anteriores* (κzeko 897. art.). Erantzukizuna solidarioa izateko, esanbidez ezarri behar da, ez da inoiz presumituko. Mankomunitatean ez bezala, solidaritatean ez da beharrezkoa parte-hartze bateratua egitea; edozeinek egikari dezake kargua, besteek egin dutena kontuan izanik, noski. Gauza bera egiteko bi edo gehiago biltzen badira, mankomunitatearen erregelak aplikatuko zaizkie eta, beraz, gehiengoaren eraentza (parte hartu nahi dutenen artean).

(3) Izendatzailearen arabera, albazea izan daiteke: **testamentugileak izendatutakoa** (*albacea*), **jaraunsleek izendatutakoa** (*albacea legítimo; cfr. κzeko 911. art.*) edo **epaileak izendatutakoa** (*albacea dativo*). Azken suposamendu horri buruz, PzLko 977. artikulua jaraunsle-deklarazioa ofizioz egiteko prozedura aipatzen du, bereziki norbait testamenturik gabe hil bada eta aurreko ahaidetik, ondorengorik, ezkontiderik edo laugarren maila arteko ahaidetik ez badu. Kasu horretan, ondasunak babesteko beharrezko erabakiak har ditzake epaileak. Indarrrik gabe utzitako 1881eko PzLko 966. artikulua aipatzen zituen erabaki horiek, eta, horien artean, zera adierazten zuen: *procederá el juez a nombrar un albacea dativo que se encargue de disponer el entierro, exequias y todo lo demás que sea propio de este cargo con arreglo a las leyes...*".

5.-Albazearen ahalmenak eta betebeharrak

(1) Hasteko, **testamentuan ezarritakoak**: *los albaceas tendrán todas las facultades que expresamente les haya conferido el testador y no sean contrarias a las leyes* (κzeko 901. art.). Kodeak 747. eta 749. artikuluetan aurreikusitako suposamenduetan, albazeak testamentugileak nahi duena betetzeko ahalmenak izango ditu, testamentuan jarritakoak, eta baita horretarako legeak ematen dizkionak ere. Albazea unibertsala bada, bere funtziotik eratortzen diren ahalmen guztiak izango ditu.

(2) **Legeak emandakoak**: *no habiendo el testador determinado especialmente las facultades de los albaceas, tendrán las siguientes: 1ª Disponer y pagar los sufragios y el funeral del testador con arreglo a lo dispuesto por él en el testamento; y, en su defecto, según la costumbre del pueblo. 2ª Satisfacer los legados que consistan en metálico, con el conocimiento y beneplácito del heredero. 3ª Vigilar sobre la ejecución de todo lo demás ordenado en el testamento, y sostener, siendo justo, su validez en juicio y fuera de él. 4ª Tomar las precauciones necesarias para la conservación y custodia de los bienes, con intervención de los herederos presentes* (κzeko 902. art.).

(2.1) Lehena: askotan ez da betetzen, izendapenaren berri ez baita jakiten hileta burutzeko hain epe laburrean.

(2.2) Bigarrena: dirutan direnez bakarrik arduratuko da, jaraunspenaren kontura badira, eta testamentugileak legatu hori egiteko obligazioa ez badio beste norbaiti enkargatu.

(2.3) Hirugarrenean, bi funtzio biltzen dira: (a) albazea ez direnek beren obligazioak bete ditzaten kontrolatu behar du albazeak; (b) kudeaketa prozesala: testamentuaren baliozkotasuna defendatu behar du, legezkoa bada; beraz, norbaitek inpugnatzen badu, albazea ere deitu beharko da prozedurara (legitimazio pasiboa); horrekin batera, testamentuak eraginak sortzeko egin beharrekoak ere egin ditzake (esaterako, protokolizatzeaz arduratu).

(2.4) Laugarrena: behin-behineko erabakiak hartu gauzak kontserbatzeko, ez daitezen galdu edo kaltetuak suertatu. Ez da administratzeko ahalmen zabala, baina administrazio arrunteko erabakiak hartzeko ahalmena du. Jaraunsleen parte-hartzea eskatzen da; ados egon behar dute, alegia.

(3) **Besterentzeko ahalmena**: testamentugileak esanbidez eman badio, jaraunsleen parte hartzerik gabe besteren ditzake ondasunak, betiere seniparteak errespetatuz eta senipartedunen parte-hartzearekin, horiek ondasunak jasotzeko eskubidea baitute. Esanbidezko deklaraziorik ezean, honako aukera hau ematen dio legeak: *si no hubiere en la herencia dinero bastante para el pago de funerales y legados, y los herederos no lo aprontaren de lo suyo, promoverán los albaceas la venta de los bienes muebles; y no*

alcanzando éstos, la de los inmuebles, con intervención de los herederos. Si estuviere interesado en la herencia algún menor, ausente, corporación o establecimiento público, la venta de los bienes se hará con las formalidades prevenidas por las leyes para tales casos (κzeko 903. art.; cfr. HLko 20.4. art.). Ondasun higiezinak besterentzeko, jaraunsleek ere parte hartu behar dute, eta, akordiorik ez badago, epaileak erabaki beharko du.

Ahalmenen ondoan, albazeak **betebeharrak** ere baditu. Oro har: *el albacea que acepta este cargo se constituye en la obligación de desempeñarlo* (κzeko 899. art.). Hortik abiatuta, testamentugilearen aginduak eta funtzioa arautzen duten erregelak errespetatu beharko ditu. Bere kargu dauzkan ondasunak eskuratzeko ere, badu muga: *no podrán adquirir por compra, aunque sea en subasta pública o judicial, por sí ni por persona alguna intermedia: (...) 3º Los albaceas, los bienes confiados a su cargo* (κzeko 1459. art.). Erantzukizunari dagokionez, bere jarduera burutzeko, guraso on baten ardurarekin aritu beharko du (κzeko 1719.2. art.); gainerakoan, obligazioak ez betetzeari buruzko eraentza juridikoa aplikatuko zaio (κzeko 1100. art. eta hurrengoak, eta 1718. art.). Albazeak bat baino gehiago izanez gero erabakia hartzerako orduan norbait ados agertu ez bada, ez da erabakiaren erantzule izango; egintza aldebakarrekoa bada, erantzukizuna ere pertsonala da (κzeko 896. art.), besteek onetsi ez badute, behintzat. Izan ere, jarduteko solidaritatea ezartzen bazaie ere, erantzukizunari buruz ez da ezer esaten. Hain zuzen, oinordekoen aurrean erantzungo du albazeak.

Karguaren edukia osatzeko, zenbait **eskubide** ere ematen zaizkio albazeari:

(1) Mandatu-hartzaileari buruzko eraentzan jasotakoak (κzeko 1728., 1729. eta 1730. art.).

(2) Ordainsariari buruz, Kodeko 908. artikulua zera ezartzen du: *el albaceazgo es cargo gratuito. Podrá, sin embargo, el testador señalar a los albaceas la remuneración que tenga por conveniente; todo sin perjuicio del derecho que les asista para cobrar lo que les corresponda por los trabajos de partición u otros facultativos. Si el testador lega o señala conjuntamente a los albaceas alguna retribución, la parte de los que no admitan el cargo acrecerá a los que lo desempeñen*. Testamentugileak ordainsaria eman diezaiokie albazeari; izaeraz, jaraunspenaren kontura ordaindu beharreko legatu bat da. Horrez gain, bere lanbideari dagokiona ere kobratu dezake eta, noski, bere funtzioa betetzeak sortzen dizkion gastuak.

6.-Karguaren eraentza juridikoa

(1) Kargua, izaeraz, **txit pertsonala** da. Horregatik, jaraunsleek ezin dute baztertu; gogoratu kontatzaile-partitzailea, aldiz, bazter dezaketela, jaraunsleek aho batez hala erabakitzen badute. Gainera, Kodeko 909. artikulua zera dio: *el albacea no podrá delegar el cargo si no tuviese expresa autorización del testador*. Horrek ez du esan nahi laguntzaileak erabil ezin ditzakeenik. Noski, albazeak ordezkua izendatzeko baimena esanbidez jaso beharko da testamentuan eta, analogiaz, mandatuari buruzko Kode Zibileko 1721. eta 1722. artikulua ere aplikatuko dira.

(2) **Izendapena testamentuan** egingo da, Kodeko 892. artikulua testamentugilea aipatzen baitu: *el testador podrá nombrar uno o más albaceas*. Beraz, izendapenaren baliotasuna baieztatzeko, testamentuaren erregimena izan beharko da kontuan. Halaber, baldintzapean edo epe baterako egindako izendapena ere baliozkoa izango da.

(3) **Delazioa**: kargua borondatezkoa da eta, beraz, onartzeko edo saihesteko aukera du kargura deituak. Hain zuzen ere, Kode Zibileko 898. artikulua zera dio: *el albaceazgo es cargo voluntario, y se entenderá aceptado por el nombrado para desempeñarlo si no se excusa dentro de los seis días siguientes a aquel en que tenga noticia de su nombramiento, o, si éste le era ya conocido, dentro de los seis días siguientes al en que supo la muerte del testador*. Albazeak ez badu ezer adierazten, onartu duela uste izango da, legearen aginduz. Onartzeko egintza *inter vivos* egindako borondate-deklarazioa da, forma berezirik gabe, hala dagokionean isilbidez egin daitekeena. Kargua onartzen badu, bete egin behar du: *el albacea que acepta este cargo se constituye en la obligación de desempeñarlo; pero lo podrá renunciar alegando causa justa al prudente arbitrio del Juez* (Kzeko 899. art.). Kargua zapuzteko edo alde batera uzteko, berriz, esanbidezko adierazpena egin beharko da (onarpena presumitzen baita); kargua arrazoi justurik gabe onartzen ez badu, zigor zibila ezartzen zaio: *el albacea que no acepte el cargo, o lo renuncie sin justa causa, perderá lo que le hubiese dejado el testador, salvo siempre el derecho que tuviere a la legítima* (Kzeko 900. art.).

(4) Zeregina betetzeko **epeak** eraentza berezia du: *el albacea, a quien el testador no haya fijado plazo, deberá cumplir su encargo dentro de un año, contado desde su aceptación, o desde que terminen los litigios que se promovieron sobre la validez o nulidad del testamento o de algunas de sus disposiciones* (Kzeko 904. art.). *Si el testador quisiera ampliar el plazo legal, deberá señalar expresamente el de la prórroga. Si no lo hubiese señalado, se entenderá prorrogado el plazo por un año. Si, transcurrida esta prórroga, no se hubiese*

todavía cumplido la voluntad del testador, podrá el Juez conceder otra por el tiempo que fuere necesario, atendidas las circunstancias del caso (κzeko 905. art.). Los herederos y legatarios podrán, de común acuerdo, prorrogar el plazo del albaceazgo por el tiempo que crean necesario; pero, si el acuerdo fuese sólo por mayoría, la prórroga no podrá exceder de un año (κzeko 906. art.).

7.-Albazeatzaren iraungipena

Albazeatza **iraungitzeko kausak**, berriz, Kode Zibileko 910. artikulua biltzen ditu: *termina el albaceazgo por la muerte, imposibilidad, renuncia o remoción del albacea, y por el lapso del término señalado por el testador, por la ley y, en su caso, por los interesados.*

(1) **Albacea hiltzea**, kargua txit pertsonala baita.

(2) **Zeregina betetzea ezinezkoa gertatzea**, esate baterako absentzia, ezgaitasuna edo kaudimen gabeziaren egoeran dagoelako izendatua (κzeko 1732.3. art.).

(3) **Uko egitea**: Kodeko 899. artikulua arabera (*podrá renunciar alegando causa justa al prudente arbitrio del Juez*), bereizi egin behar da kausa zilegirik badagoen ala ez. Albazeatzari uko egiteko, albazeak parte eman beharko die jaraunsleei (κzeko 1736. art.); jaraunsleek, gero, epailearengana jo dezakete uste badute albazeak uko egiteko kausa zilegirik ez duela. Bidezko kausarik gabe uko egiten badu, zera aurreikusten da: *perderá lo que le hubiese dejado el testador, salvo siempre el derecho que tuviere a la legítima* (κzeko 900. art.). Interesdunak ardura hartu arte, albazeak bere zereginetan jarraitu behar du (κzeko 1737. art.) eta, kalterik sortuko balu, kalte-galerak ordaindu beharko ditu (κzeko 1736. art.).

(4) **Kenaraztea** (halabeharrez kentzen dute albacea bere kargutik): interesdunek eska dezakete albacea kargutik kentzea, baina Kodeak ez du eraentza berezirik eta kausarik jasotzen. Horregatik, analogiara jo beharko da eta honako arau hauek aplikatu, aplikagarri diren heinean: (a) tutoretzaren erregimena (κzeko 247. art.); (b) mandatua iraungitzeko erregimena (κzeko 1732. art. eta hurrengoak); (c) oinordeko izateko duintasun ezaren kausak (κzeko 756. art.). Oro har, jurisprudentziak honako kausa hauek onartu ditu: ezgaitasuna, zabarkeria, administrazio txarra, maula egitea, doloa. Dena den, epaileak kasu bakoitzaren inguruabarrak aztertuz erabaki beharko du.

(5) **Epea amaitzea**, lehen aipatutako Kodeko 904., 905. eta 906. artikuluen arabera.

AGE 1993/2/29 (RAJ 1004): "La aplicación a la contienda y que la sentencia de apelación cumple, es haberse dado la extinción del albaceazgo, que también contempla el referido art. 910 y que ha sido

producida por haber transcurrido cumplidamente el plazo legal del año de que se disponía para llevar a cabo el encargo testamentario confiado al recurrente que, en forma alguna, realizó, apartándose así de la confianza que le otorgó el testador. Extinción que opera en forma automática, aunque la norma no lo especifique, pero que reiteradamente ha mantenido la Jurisprudencia de esta Sala, ya que las funciones delegadas a dichos ejecutores testamentarios no les son concedidas para que meramente las ostente, sino y primordialmente para que las utilice y cumpla con su correspondiente, adecuado y diligente ejercicio”.

(6) **Bere zereginak betetzea**, betetzeko epea oraindik amaitu ez bada ere.

Lehenengo eta bigarrenengo kausei Kode Zibileko 1738. eta 1739. artikulua ere aplikatuko zaizkie analogiaz.

Albazeatza amaitu ondoren, albazeak **kontuak eman** beharko ditu: *los albaceas deberán dar cuenta de su encargo a los herederos. Si hubieren sido nombrados no para entregar los bienes a herederos determinados, sino para darles la inversión o distribución que el testador hubiese dispuesto en los casos permitidos por derecho, rendirán sus cuentas al Juez. Toda disposición del testador contraria a este artículo será nula* (κzeko 907 art.). Kontuak emateko obligazioaren edukia desberdina izango da albazeak zituen ahalmenen arabera; esate baterako, administratzeko ahalmena baldin bazuen edo besterentzeko ahalmenak baldin bazituen eta abar. Kodeko 671., 747. eta 749. artikuluetako suposamenduei buruzko erregimena aurreikusten du bigarren esaldiak. Legeak agintzen duelako, testamentugileak ezin du obligazio hori kendu, baina jaraunsleek, nahi badute, bai. Kontuak emateko, karguaren ondorioz bere esku zeuzkan ondasunak ere itzuli beharko ditu, egindakoaren berri emateaz gain.

IV.-TESTAMENTUAREN BERRI IZATEA: AZKEN BORONDATEA ADIERAZTEKO EGINTZEN ERREGISTROA

Ezinbesteko erabakia da tresna tekniko bat antolatzea jakiteko norbaitek bere azken borondatea adierazteko negozio juridikorik egin ote duen. Azken borondatea adierazteko egintzen erregistroa da tresna tekniko hori.

Erregistroaren helburua da informatzea ea pertsona batek bere azken borondateko egintzarik eman duen ala ez (testamentua,

oinordetzako kontratua). Bakarrik erakusten du azken borondatea adierazteko negozio juridikoa egin dela. Ez da erantzuten egintzaren balioaz, eta, halaber, ez du zehazten beste testamenturen bat ba ote dagoen; eta, hala, gerta liteke testamentu olografoa egotea, oraindik protokolizatu eta erregistratu gabea eta azkena, erregistratutakoa deusezten duena.

Erregistroa, 1885eko azaroaren 14ko Errege Dekretuak sortu zuen. Egun, honako arau hauek osatzen dute azken borondatea adierazteko egintzak jasotzeko Erregistroari buruzko eraentza juridiko nagusia: Notaritzari buruzko Erregelamenduko II. Eranskinak (1944ko ekainaren 2ko Dekretua) eta Erregistroa informatizatzeari buruzko 1689/1980 Errege Dekretuak (uztailaren 24koa).

Erregistroa, organikoki, Erregistro eta Notaritzaren Zuzendaritza Orokorraren barruan kokatuta dago.

Hiru funtzio nagusi betetzen ditu erregistroak:

(1) **Testamentuen berri jasotzea.** Notario bakoitzak bere erregistro partikularrak osatzen ditu; gero, bere elkargoari ematen dio testamentuen berri eta horiek ere beren erregistroa osatzen dute; bukatzeko, elkargoek erregistro zentralera igortzen dituzte testamentuen erreferentziak. Bereziki, Erregistro eta Notaritzako Zuzendaritza Orokorraren 31/03/1993 Ebazpen zirkularrak arautzen du prozesu hori guztia. Informazioa txartel bidez ematen da, zera islatuz: egintza-emailearen izen-abizenak, egoera zibila, auzotartasuna, notarioaren datuak, egintzaren zenbakia, egintza mota, lekua eta data.

(2) **Azken borondatea adierazteko egintzaren ziurtagiriak ematea.** Eska dezakete: (a) epaileek edo beste agintariek zertarako duten adieraziz; (b) emaileak berak edo horretarako ahalordea duen ordezkariak; (c) interesdun batek: eskatzeko, kausatzailearen heriotz-ziurtagiria aurkeztu beharko du erregistroan beti eta kausatzailea hiltzen den unetik hamabost egun igaro ondoren eska daiteke, bitartean iritsi baitaiteke azken egintza baten berri. Ziurtagiria, noski, erregistroan bertan eska daiteke; baina, izapide hori errazteko, beste bi modu berezi arautu dira: batetik, postaz eska daiteke (1981eko abenduaren 29ko Agindua [EBO abenduak 31]); bestetik, Justizia Ministerioko Lurralde Kudeaketa Bulegoetan ere eska daiteke (1998ko azaroaren 12ko Ebazpena [EBO 1999ko martxoaren 5a]). Ziurtagiria, formalki, dokumentu publikoa da, baina testamentuaren edukia balioaz ez du erantzungo, erregistratutako egintzaren berri besterik ez baitu ematen. Eta, hala, ziurtagiriak adieraziko du kausatzaileak azken borondaterik eman duen edo ez eta, eman badu, non, noiz eta zein notarioren aurrean; interesatua, gero, notario horrengana hurbil daiteke eta

testamentuaren kopia baimendua eskatu, notarioak egiazta baitezake bere aurrean emandako testamentu hori dela azkenekoa eta baliozkoa. Beraz, ez du sortzen dokumentu publikoek duten ohiko eraginik (Kzeko 1218. art.).

(3) Jaraunsleak *ab intestato* deklaratzeko, notarioak egindako ezaguntasun-agiriak erregistratzea (1368/1992 Errege Dekretua, azaroaren 13koa [EBO abenduaren 18a]). Helburua zera da: kausatzaile baten gaineko jaraunsle-deklarazioa behin egiten bada notario baten aurrean, berriz ez egitea beste notario baten aurrean.

Bukatzeko, nazioarteko araudian, kontuan izan behar da Basileako Hitzarmena, 1972ko maiatzaren 16koa, Espainiak 1984ko abenduaren 7ko instrumentu bidez berretsia (EBO urriaren 5a); arau horien arabera, testamentugileak bere testamentua inskriba dezake Hitzarmena sinatua duten edozein Estatutan.

V.-IRAKURGAIK

1. Testamentua interpretatzea

ALFÉREZ CALLEJÓN, Gabriel (1973): “El testamento y su interpretación”, *Revista Crítica de Derecho Inmobiliario*, 69-120.

GARCÍA AMIGO, Manuel (1969): “Interpretación del testamento”, *Revista de Derecho Privado*, 931-971.

2. Albazeatza

ALPAÑES DOMÍNGUEZ, Enrique (1965): “Albaceazgo de realización y albaceazgo de entrega”, in *Estudios de Derecho Privado II* (Antonio de la E. MARTÍNEZ RADIO), Madril, Editorial Revista de Derecho Privado, 416-451; eta *Revista de Derecho Privado* (1964), 1033.

CASTÁN VÁZQUEZ, José M^a (1962): “La constitución de albaceazgo en el Derecho comparado y en el Derecho español”, *Revista de Derecho Privado*, 401-421.

VI.-KOMENTATZEKO TESTUAK

AGE 1973/2/23 (RAJ 586): Que si bien el Código Civil preceptúa que el albaceazgo termina por remoción del albacea, de donde se sigue que ha de haber casos en los cuales éste puede ser removido de su cargo, incurre en la deficiencia de no desenvolver esta materia, dejando de

señalar cuáles han de ser las justas causas que den lugar a la remoción, vacío que hoy está subsanado en gran parte por esta Sala que en su Sentencia de 4 febrero 1902 declaró que no puede el silencio de la ley en punto a las causas de remoción de los albaceas, ser suplido con la aplicación analógica de lo estatuido con referencia a alguna otra institución jurídica, pues la única con motivo de la cual el Código Civil trata de remoción de cargos, es la tutela, institución que ni por la causa que le sirve de fundamento, ni por su peculiar organismo, ni por la finalidad a que responde, tiene analogía con el albaceazgo, por lo que dada la falta de ley expresa, y con sujeción a los principios generales de Derecho, según los cuales las leyes prohibitivas y las que envuelven una sanción penal, no pueden en modo alguno interpretarse extensivamente, las causas de remoción de los albaceas no deben ser otras que las que incapacitan para el desempeño del cargo o para el ejercicio de los derechos civiles, por la razón fundamental de que no puede desempeñar cargo alguno el que incurra en incapacidad legal para obtenerlo, y además la conducta dolosa de los albaceas, causa que se deriva, primero del principio inconcuso de que no debe ejercer función ni desempeñar cargo, debido exclusivamente a la confianza del testador, el que por actos engañosos o fraudulentos se hace indigno de ella y evidencia que carece de la condición esencial a la que debe su nombramiento, y segundo, del racional fundamento de que no puede ser ejecutor de la voluntad del finado quien maliciosamente la contraría, doctrina que completa la Sentencia de 18 febrero 1908, dando a entender que también la negligencia, cuando es rayana en el dolo, puede estimarse como causa de remoción, pues establece que procede conceptuar como tal el incumplimiento durante larguísimo tiempo de la voluntad del testador y la abusiva gestión en cuanto al manejo de los bienes, revelada principalmente por la falta de inventario de los que el testador dejó a su fallecimiento, señalando finalmente la Sentencia de 5 julio 1947 (RJ 1947\937), que una de las notas diferenciales entre el albaceazgo y el mandato es la imposibilidad de que el nombramiento de los albaceas se revoque después de la muerte del testador, ya que no son mandatarios de los herederos, como ni el cargo es perpetuo ni en él les es dable producirse a su capricho, necesariamente ha de asistir a aquéllos la facultad de instar la remoción que entre los otros modos de terminar el albaceazgo establece el art. 910, y cierto es que este precepto no enumera las causas que a la misma pueden dar lugar, pero, precisamente por ello, queda remitido el determinarlas a la prudente y justificada apreciación de los Tribunales, que en cada caso concreto habrán de fundar su criterio decisivo atendiendo a la naturaleza y finalidad del albaceazgo y a la observancia que el albacea presta a sus principios rectores, de donde se sigue que serán causas justas de remoción, además de las que incapaciten para el cargo a los albaceas nombrados, su conducta dolosa y el uso malicioso en perjuicio de los llamados a la herencia, de facultades que no les asistan

